

IRABAZI ITURRIAK

Gure makinak ondasun ezberdinak onartzen ditu eta bakoitzak balio ezberdina edukiko du. Ondasun hauen prezioak, beraien garrantzia eta balioan oinarritzen dira, baita erabileran ere. Izan ere, produktu bakoitzari ez zaio erabilera berdina ematen; adibidez, mugikorrari erabilera gehiago ematen diogu liburu bati baino. Horregatik, bakoitzaren prezioa aldakorra da.

Beraz, honetan oinarriturik, prezio ezberdinak edukiko ditugu. Irabaziak txantilo batean daude igarrita makinaren alboan eta multzo bakoitzak prezio ezpezifikoa edukiko du: lehen multzoan janzteko diren gauzak edukiko ditugu: galtzak, gonak eta soinekoak 10€; oinetakoak, zapatilak, botak, sandaliak eta txankletak 5-10€ artean; kamisetak eta nikiak 3€ eta azkenik, berokiak, kazadorak eta txaketak 15€-ko balioa izango dute. Bigarren multzoan, bestelako gauzak edukiko ditugu: mugikorrak, ordenagailuak, aurikularrak eta bestelako teknologia gailuak 200-400€, eskolako liburuak, komikiak, irakurmen liburuak... 18€, motxila, boltso eta rinorenak 15€.

Hala ere, produktu bat sartzen duen bezeroari horren truke emango zaion diru kantitatea eta produktu bera erosiko duen beste bezeroak ordainduko duen dirua ez da bera izango; hau da, prezioa aldatu egingo da. Izan ere, OMNUS S.L enpresak irabaziak izan ditzan, bezeroak produktu bat sartzean, honen prezioa %10 igoko da. Adibidez, bezero batek eskolako liburu bat sartuko du 18€-ren truke. Guk kantitate horren %10 garestiago jarriko dugu, hau da, 1,8€ garestiago. Azkenik, liburu hau nahi duen beste bezero batek, 19,8€ ordaindu beharko du. Beraz, goian ezarritako prezioak, lehen bezeroarenak izango dira eta erosi nahi duten bezeroena, makinak bertan ezarriko die.